

Katalunia eta Euskadi

Euskaldunon Egunkaria, 1994-02-15: 2.

Herri bakoitzak bere historia du; hobeto esan, egiten du. Eta egin, ez nahi duen bezala, ahal duen moduan baizik. Gaur norbaitek esan dezake; hara, katalanak hizkuntzarekin goia jotzen, eta geu lur utzi ezinik. Eta egia da. Baina egiak ere baditu bereziak diren sostenguak. Hizkuntzaren sujetua gizakia da, eta mintzoa sortu duen herriari bagagozkio, etnia aipatzea ez da keria bat, eta honen euskarri nagusiak geografia eta historia direla eranstea ere ez. Hemen; Mediterraneoia eta bere kultura askoren elkarbizitza aberatsa, ez da gure itsaso irekia eta kulturaz hotzagoa den Atlantiar Ozeanoa. Haiek han jaso zuten erromatarren kulturak ez du zerikusirik guri honek eman zigun igurtzi apalarekin. Bere hizkuntza galdu eta Hispania eta Galiako herri gehienak latina hartu zutenean, guk txiro ziren mendi eta sakanetan bakarti iraun genuen; euskaldunok genuen buru nagusiak, Nafarroako Erregegoak, ere garaian European erabiltzen zen administralgoko hizkuntza hartu zuen. Nor ginen gu Europaren aurrean! Bitartean, jaun eta jabe zen latina frantses, gaztelera, katalana eta gailegoa bilakatzen joan zen, gurea ezik! Eta ez digute pertsonalitate bakar, berezi, izatea barkatu! Katalanaz ari gara orain; latinetik denbora berean sortzen joan diren hizkuntzak gaur gaztelera ofizialetik gaurkotzea errazago dute aintzinako Baskon-basakoiaren hizkuntza berreskuratzea baino, Jordi Pujol President-ak erraz esan diezaioke orain Espainiako Gobernuari katalana ohizko hizkuntza izatea nahi duela. Baina jai du gure Lehendakariak beste hainbat eskatzen badu euskalduntze prozesua bizkortzen ez bada behintzat.